




**OREXAKO**  
**UDALA**



**orexa**  
Bidea hemen hasten da

ANA JESUS ZABALA GARMENDIA, OREXAKO UDALEKO IDAZKARI-KONTU  
HARTZAILEAK

ZIURTATUA:

Orexako Udalak, bi mila eta hamalauko uztailaren hamaikan burututako Bilkura Nagusian, erabaki hau onartu zuen:

### **HAPOren FORMULAZIOA ETA HERRITARREN PARTE-HARTZE PROGRAMAREN ONESPENA**

Gure herriak dituen beharrizanak asetzeko, eta beharrizanak zein diren aztertze aldera, erabiltzekoak ditugun azpiegiturak, etxebizitzak eta ekipamenduak bulduko dituzten lurzoruak gordeko ditugu eta, halaber, ingurumena babesteko irizpide berriak geureganatuko ditugu. Gainera, egokitu behar gatazka ekainaren 30eko 2/2006 Legean, Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoan, xedatutakoari.


Legearen 90.1 artikuluan xedatutakoa ezarrita, gure udalari dagokio plan orokorra egitea. Gainera, egitea erabakitzen denean, informazioa eskatuko zaie Eusko Jaurlaritzan eta dagokion foru-aldundian babes zibilaren, ingurumenaren, kultura-ondarearen eta naturguneen alorreko eskumenak dituzten organoei, arriskuen berri izateko eta ingurumena, kultura-ondarearen babesa eta naturguneak baldintzatzen dizuten faktoreak zeintzuk diren eta antolamenduak zeintzuk errespetatu behar dituen jakiteko. Informazio hori emateko, bi hilabeteko epea egongo da, eta justifikazio tekniko eta juridikoarekin batera emango da. Horiek horrela, Informazio Batzorde honen zinegotziek gaia eztabaidatu ondoren, aldeko irizpena igortzen da, aho batez; eta udaltzari hauxe aurkeztu diote:

### **ERABAKIA**

- 1.- Orexako Hiri Antolamendu Plan Orokorra egitea eta beronen idazketa erabakitzea.
- 2.- Behin espedientea helarazi zaienean, txostena eskatzea ondoko gaien inguruko eskumenak dituzten autonomia eta foru-organoei: babes zibila, ingurumena (bereziki erreferentzia-agiria igortze aldera), kultura-ondarea eta naturguneak. Txostenotan arriskuen berri emango dute, eta ingurumena, kultura-ondarearen babesa eta naturguneak baldintzatzen dituzten faktoreak zeintzuk diren eta antolamenduak zeintzuk errespetatu behar dituen adieraziko dute. Bi hilabete gaitutako ez dituen epearen barruan emango da, behar besteko justifikazio tekniko eta juridikoekin batera.



**OREXAKO**  
**UDALA**



**orexa**  
Bidea hemen hasten da

3.- Espedientean jasotzen den Hiritarren Parte-hartze Programa onartzea.

4.- Alkatezari ahalmena ematea, edo legez ordeztzen duenari, jomuga erdiesteko behar beste agiri sina dezan.

Honela ager dadin eta behar den lekuan ondorio egokiak sor ditzan, ziurtagiri hau luzatu eta sinatu, Orexan, bi mila eta hamalauko uztailaren hamalauan.

Onespena  
ALKATEAK

